

<b>Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak, Dekretoak dionez</b>	<b>Gure ikastetxerako konprezioa</b>	<b>19. artikuloko neurrien konprezioak. 18. artikulua ere kontuan hartzen dugu.</b>
<p>a) Irakasleen edo haren agintearen aurkako edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen aurkako irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umiliazioak, haien aurkako indarkeria fisikoa edo bestelakoa eta, halaber, haienganako jazarpen eta hitzezko edo egitezko jokabideak, bereziki alderdi sexista, arrazakeriazkoa edo xenofoboa badute edo pertsonen sinesmen edo konbizio moralen aurkakoak badira, edo dituzten ezaugarri pertsonalen, ekonomikoen, sozialen edo hezkuntzakoengatik ahulenak diren pertsonen aurka egiten badira.</p>		
<p>b) Eskolaldiko edo hezkuntzako jardueren barreneko testuak, irudiak, soinuak eta abar grabatzea zuzendaritzak baimentzen ez dituen erabileretarako, baita pertsonen bizitza pribatuarekin zerikusia duen edozein eszena grabatzea ere.</p>		
<p>c) Aurreko atalean adierazitakoak baliabide elektronikoen bidez edo beste baliabide batzuen bidez hedatzea.</p>		
<p>d) Ikastetxeko instalazioak, materialak edo dokumentuak, eskolako garraiobideak edo bisitatzeko diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten gainerako kideen gauzak ere, kaltea larria denean.</p>		

<p>e) Asmo txarrez eginak izateagatik, eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen osotasun fisikoarentzat arriskugarriak izan daitezkeen portaerak.</p>		
<p>f) Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo informazio faltsua ematea nahita, horrek eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten badio.</p>		
<p>g) Ikastetxeko gauzak edo edozein pertsonaren gauzak lapurtzea.</p>		
<p>h) Ekitaldi akademikoetan beste pertsona baten itxurak egitea eta agiri akademikoak faltsutzea edo lapurtzea. Bereziki larritzat joko da azterketen ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea, eta haiek hedatzea, edukitzea, erostea edo saltzea.</p>		

<p>i) Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den poertara baten jakitun edo lekuko izatea eta zuzendaritza taldeari ez jakinaraztea.</p>		
<p>j) Obedientzia ukatzeko portaerak, bereziki ezarritako hezkuntza neurriak betetzen ez direnean.</p>		
<p>k) Konstituzioan jasotako eskubide eta askatasunen aurkakoak diren edo terrorismoaren apologiatzat hartzen diren pintaketak edo idatzizko beste adierazpen batzuk egitea edo halako kartelak jartzea.</p>		
<p>l) Drogak kontsumitzea edo banatzea, tabakoa erretzea edo edari alkoholodunak edatea behin eta berriz ikastetxeko guneeetan, eskolako garraiobideetan edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan, edo portaera horiek hartzera bultzatzea.</p>		

m) Elkarbizitzaren aurkako portaerak behin eta berriz hartzea.		
n) Ikastetxeko jardueren ohiko garapena zuzenean galaraztera bideratutako edozein egintza edo jokabide oker.		